



# BERRI Pape Ra

2019ko ekaina ▪ 49. zenbakia

## UdalERRI euskaldunak GARATzea IZANGO DA AGINTALDI BERRIKO ERRONKA, BABES NEURRIAK ZABALTZEAREKIN BATERA **2-3 or.**



**Iñaki ARREGI BEKA SORTU DU UEMAK**  
BI IKERLAN SARITUKO DITU, BAKOITZA 5.000 eurorekin  
UdalERRI euskaldunen GARAPENA AZTERTzea,  
IKERKETA SUSTATzea eta SOZIOLINGUISTIKAREN  
INGURUKO EZAGUTZA AREAGOTzea DA XEDEA. **4. or.**

**Euskara, erabakien ERDIGUNERA**  
UEMAk konpromiso zehatzak hartu ditu KORRIKAREKIN  
Euskara ERABAKI POLITIKOEN ERDIGUNEAN  
KOKATZEKO LANA BIDERKATzea eta HAUTETSI  
BERRIAK TREBATzea, BESTEAK BESTE. **6. or.**

# Azken URTEOTAN emandako PAUSOAK SENDOTZEKO eta EUSKARA GARAPENAREKIN LOTZEKO GARAIA

**2015-2019 agintaldia amaitzearekin batera, ATZERA BEGIRATU eta azken LAU URTEOTAKO JARDUNAREN ERREPASOA egin du UEMAK. Batez ere HORRETARAKO baliatu zuen maiatzaren 4an AZPEITIAN egin zuen Batzar Nagusia. BERTAN, UEMAREN BERDINTASUN PLANA onartzearekin batera, amaitu BERRI DEN AGINTALDIKO BALANTZEA egin zuten UDALERRI EUSKALDUNETAKO DOZENAKA ALKATEK eta ZINGOTZIK. UDALERRI EUSKALDUNAK LEGEZ BABESTEKO eman diren PAUSOAK SENDOTZEA, eta UDALERRIAK GARATZEKO PROPOSATU DIREN OINARRIEN GAI NEAN LANEA HASTEA IZANGO DIRA AGINTALDI BERRIKO LEHEN ERRONKAK.**



Maiatzaren 4an egin zuen UEMAK agintaldi honetako azken batzar nagusia, eta azken lau urteotako balorazioa egin zuten udalerrri euskaldunetako zingotzi, alkate eta udal ordezkariak.

Azken agintaldian, udalerrri euskaldunak babesteko neurriak proposatetik neurri horiek lege bihurtzerainoko bide luzea egin da, batez ere EAEko udaletan. Babes neurriak sistematizatzear gain, urrats berriak egiteko eta udalerrrien garapenari berebizikoa garrantzia emateko ordua heldu dela ondorioztatu du UEMAK, beste hainbat eragilerek batera.

UEMAko lehendakari Josu Labakaren hitzetan, “pauso garrantzitsuak eman dira agintaldi honetan zehar, baina udalerrri euskaldunen garapen iraunkorra da giltza, eta hori bermatzeko ordua da orain”.

Izan ere, udalerrri euskaldunak babesteko eta garatzeko proposamen zehatzak mahai gaineratu ditu UEMAK azken urteotan, eta horien garrantzia herritarrei zein hautetsi berriei ikusaraztea lehentasunezkoa izango da agintaldi berriaren hasieran. Beti ere UEMAREN helburu estrategikoak lortzeko urratsekin batera.

## UEMAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK

Udalerrriak erabat euskaldun izan daitezzen, UEMAK zenbait helburu estrategiko ditu, eta azken lau urteotan horiek lortzeko bidean eman diren aurrerapauso esan-

guratsuenak nabarmendu zituzten batzar nagusian.

Udalerrri euskaldunen lurgunea osatzea eta sendotzea, udalerrrien erabateko euskalduntzea, herritarren sentsibilizazioa eta ahalduntzea, eta udalerrri euskaldunen zaintza eta garapena dira UEMAREN helburu estrategikoak.

Horien baitan dozenaka egitasmo zehatz ditu UEMAK. Bertako kide diren 86 udalekin elkarlanean bideratzen ditu, udalen zein udalerrrien euskalduntzeari lehentasuna emanez, herritarren kontzientizazioarekin batera.

## LAU URTEKO JARDUNA AMAITU DU ZUZENDARITZA BATZORDEAK, EGINDAKO LANAREN AITORTZA JASOTA

Agintaldiarekin batera amaitu du bere jarduna azken lau urteotako UEMAREN zuzendaritza batzordeak ere, eta egindako lanaren aitortza jaso zuten batzordekiek azken batzar nagusian, oroigarri banarekin.

UEMAko kide diren 86 udalek hainbat ordezkari dituzte batzar nagusian, herrien biztanle kopuruaren arabera. Horietatik hamaika hautatzen dira agintaldi hasieran, lau urtean UEMAREN zuzendaritza batzordeko kide izan daitezzen. Mankomunitatearen erabakigune nagusia denez zuzendaritza batzordea, hau osatzerakoan udaletan dagoen aniztasuna islatzeko ahalegina egiten da, bai alderdiei eta baita lurraldetasunari dago-kionez ere.

Agintaldi honetan, Josu Labaka azpei-



UEMAREN zuzendaritza batzordea osatzen duten hainbat ordezkari, maiatzaren 4an, batzar nagusiaren amaieran.

tiarra izan da lehendakaria eta Onintze Amezcua gatikarra, berriz, lehendakariordea. Lierni Altuna (Aramaio), Mikel Ansotegi (Aulesti), Amaia Azkue (Berastegi), Aitor Elexpuru (Bera), Andere

Enbeita (Muxika), Nekane Iribar (Zarautz), Manuel Labaka (Beizama), Eneka Maiz (Etxarri-Aranatz) eta Josetxo Mendizabal (Zestoa) izan dira gainerako zuzendaritza batzordekideak.



**UDALERRI EUSKALDUNEN LURGUNEAREN OSATZEA: AGINTALDI HASIERAN 73 UDAL ZIREN UEMAKO KIDE. Amaieran, 86.**

Udalerri euskaldunen lurguneari dagokionez, agintaldia UEMAKo kide diren 73 herrirekin hasi zen 2015ean. Lau urte geroago, gaur egun, 86 udal dira UEMAKo kide. Guztien artean, 245.000 biztanle inguruko lurgune euskalduna osatzen dute. Asko herri txikiak badira ere, badira biztanlez handiagoak diren herriak ere: Zarautz, Tolosa, Bergara, Oñati, Bermeo, Azpeitia, Lekeitio, Ondarroa, Markina-Xemein, Bakio, Baztan edo Zumaia, besteak beste.

Zuzendaritza batzordearen aniztasunak eta alderdien eta ordezkarien elkarlanerako borondateak bidea egiten lagundu du agintaldi honetan.



**ARNASGUNEEN BURUZKO HEZKUNTZA PROIEKTUA: ESTRATEGIKOA DENEZ GAZTEAK KONTZIENTZIATZEKO, SISTEMATIKOKI ESKOLA GUZTETARA.**

Herritarren sentsibilizazioari eta ahalduzazari dagokionez, agintaldi honetan abiarazitako UEMAREN hezkuntza proiektua da ildorik sendoena. Eskola guztietara sistematikoki zabaltzen da, ikasleek hizkuntza ekologiarren ikuspegia jaso eta arnasmuneen garrantzia ezagutu dezaten. Gazteak sentsibilizatzeko da helburua, euskarari eutsi diezaioten, kontzienteki.

Hezkuntza araututik kanpo ere lehen aldiz antolatu diren gazte topaketak eta udalekuak ere ildo horretan kokatzen dira. Baita haur eta gurasoentzat eta oro har herritarrentzat antolatzen diren tailerrak eta hitzaldiak ere.



**ELE. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA: LEGEZ, HIRIGINTZA PROIEKTUEN HIZKUNTZA ERAGINA AZTERTU BEHAR DUTE UDALEK.**

Udalerri euskaldunen zaintzari eta garapenari buruzko hausnarketak azken urteotan izan duen bilakaera nabarmena da: batez ere Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldiek urteetan zehar ekarri duten guztia, horren harira sortu zen eragin linguistikoa ebaluatzeko tresna, honek Udal Legearen baitan EAEn lege izaera hartu izana, eta udalerri euskaldunak benetan garatzeko zehaztu diren ildoak eta azken jardunaldietan proposatu diren ekimenak.

Erakunde publikoen, euskalgintzako eragileen, unibertsitatearen eta hainbat eragileren artean elkarlanean egindakoaren isla argiena da ELE.



**UEMAK 25 URTE: SUSTRAIEI BEGIRA, ERRONKA BERRIEI ARNESA EMATEKO.**

UEMAK 25 urte bete zituen 2016an, eta ordura arte egindako lana jendarteratzeko eta UEMAREN nondik norakoak zabaltzeko balio izan zuen urteurrenak, hedabideetan zein herritarren artean. Mende laurdena ospatzeko ekitaldiak, UEMAREN sorreraren eta izaeraren isla izan ziren: euskalgintzaren eta erakunde publikoen arteko zubi sendoa.



**HAUSNARKETARAKO JARDUNALDIAK: ELKARLANEAN, BIDEA ZABALDUZ.**

Udalerri euskaldunek dituzten erronken inguruan Lurraldea eta Hizkuntza eta beste zenbait jardunaldi antolatu ditu UEMAK azken urteotan, elkarlanean. Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, EHU, UEU, Kontseilua, Soziolinguistika Klusterra eta Gaindegia izan ditu bidelagun. Besteak beste, arnasmuneak garatzeko ildoak zehaztu dituzte.



**TURISMOA: EUSKARA BISITARIEI NABARMENTZEKO HAINBAT URRATS.**

Euskara turismo eskaintzaren erdigunera ekartzeko beharra ikusita, hainbat urrats egin ditu UEMAK azken urteotan, aitzindaritzaren hartu duten zenbait udalekin eta Urola Kostako Udal Elkartearekin batera. Euskara eskaintza turistikoaren ardatzetako bat izatea lortu nahi da, monumentuak, gastronomia edota baliabide naturalak nabarmentzen diren modu berean.



# IÑAKI ARREGI BEKA

## IÑAKI ARREGI BEKA SORTU DU UEMAK, UDALERRI EUSKALDUNEN GARAPENA AZTERTZEKO, IKERKETA SUSTATZEKO ETA EUSKAL SOZIOLOGIAKAREN INGURUKO EZAGUTZA AREAGOTZEKO

**UDALERRI EUSKALDUNAK GARATzea DA EUSKARAREN ARNASGUNEELI SENDO EUSTEKO MODU ERAGINKORRENA. ONDORIO HORRERARA HELDU ZIREN IAZ UEMA, KONTSEILUA, UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA ETA GAINDEGIA, ETA UDALERRI EUSKALDUNAK GARATZEKO HAINBAT IRIZPIDE ETA OINARRI PROPOSATU ZITUZTEN, HORIEK GUZTIAK HAINBAT ARLOTAKO ADITUEKIN BATERA AZTERTU ONDOREN. ORAIN, OINARRI HORIEK AINTZAT HARTUTA, UDALERRI EUSKALDUNAK GARATZEKO ADIBIDE PRAKTIKOAK AZTERTU ETA ABIARAZI NAHI DITUZTE AGINTALDI BERRIAN. HORRETTARAKO, IÑAKI ARREGIREN OMENEZKO BEKA SORTU DU UEMAK, ETA BI LAN SARITUKO DITU LEHEN DEIALDIAN, BAKOITZA 5.000 EUROREKIN.**



Uztailaren 24an amaituko da Iñaki Arregi Bekaren lehen deialdira aurkezteko epea.

Euskararen biziberritzean eta bilakaeran, eragin nabarmena dute euskara zerbitzuetatik edo hizkuntza politikako sailetik aparteko beste sailetatik egiten diren politika publikoek.

Hau jakinda, herri erakundeen politikan prebentzioaren ikuspegia txertatzeko ildo lantzea izan zen lehen urratsa, proiektu zehatzek kalterik ez eragiteko gune euskaldunen euskarazko gizarte bizitzan eta kultur garapenean.

Iazko jardunaldian, berriz, beste urrats bat egitea eta prebentzioaren ikuspegitik garapenera igarotzeko beharra nabarmendu zen, eta udalerrri euskaldunen eta arnasmuneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak adostu ziren. Oinarri horiek bideratzeko egitasmo zehatzak abiaraztea da orain asmoa, udalerrri euskaldunak garatzeko eta arnasmuneei bizirik eusteko.

### **5.000 EUROKO BI LAN SARITUKO DIRA**


Zehazki, udalerrri euskaldunak garatzeko proposamen zehatzak eta bideragarriak

bildu nahi ditu Iñaki Arregi Bekaren lehen deialdiak. UEMAK sortu du beka, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Kontseiluarekin eta UEUrekin elkarlanean.

Lehen deialdi honetan, 5.000 euroko bi lan sarituko dira. Proposamenak eta lehen laginak aurkezteko epea uztailaren 24an amaituko da, eta epaimahaiak irailaren 20an jakinaraziko du diruz lagundutako ikerlanak zein izango diren. Egun horretatik aurrera, saridunek bederatzi hilabete epea izango dute laginak garatzeko eta ikerlanak aurkezteko. Amaitzean, gutxienez 75 eta gehienez 200 orrialde izan beharko dituzte saritutako lanek.

Beka norbanakoek edota ikerketa egiteko berariaz sortutako lantaldeek jaso ahal izango dute.

Udalerrri euskaldunen garapenarekin ez ezik, soziolinguistika edukiak zabaltzearekin eta udalerrri euskaldunei buruzko ikerketarekin lotura estua izango du beka, eta UEMAK antolatutako jardunaldietan ezagutaraziko dira lan saridunen edukiak.



**Iñaki Arregi, UEMAREN ARIMA**

Iñaki Arregi Ihartzta (1953-2010) izan zen UEMAREN koordinatzailea, hil zen arte. Ederki zekien UEMAREN nondik norakoak eta helburuak gainontzekoei helarazten, eta UEMAREN arima izan zen, sorreratik.

Euskaltzale sutsua izan zen Arregi, eta Euskal Herri euskalduna lortzeko bidean ezinbestekoa iruditzen zitzaion UEMAREN lana eta lurgunea zabaltzea.

## **UDALERRI EUSKALDUNETAKO FAMILIETAN ZENBAIT EGUN IGAROTZEKO AUKERA IZAN DUTE ERDALGUNEETAKO GAZTEEK**

**Ekimen berria abiarazi dute aurten UEMAK eta Eusko Jaurlaritzak, proba modura, gazteen kontzientzia-eragin nahian: 'HARRERA FAMILIA EGITASMOA'. Horren baitan, gune erdalduneetako gazte euskaldunek zenbait egun igaro dituzte UDALERRI EUSKALDUNETAKO FAMILIETAN, EUSKARA NATURALTASUNEZ ERABILTZEN DELA IKUS DEZATEN.**

Udalerrri euskaldunetako eskoletan gazteak euskararen inguruan kontzientziatzeko hezkuntza proiektuaz edota udalerrri euskaldunetako gazteen topakeez gain, aurten, lehen aldiz, gazteei zuzendutako ekimen berria abiarazi du UEMAK, oraingoan Eusko Jaurlaritzarekin eta Bilbo Handiko Lauro ikastolarekin elkarlanean. Proiektu pilotua izan da.

Gure erdaldunetako eskola askotan gertatzen den moduan, Bilbon, Lauro ikastolako gazteen hizkuntza erabilera asko jaisten da adin batetik aurrera. Bertako arduradunen hitzetan, "oro har, ingurune soziolinguistikoa medio, gazte horiek ez dute euskaraz modu naturalean aritzeko aukerarik. Areago, gainera, ez dute uste benetan euskaraz bizi daitekeenik ere, eta horrek euskaraz aritzeko erabakian asko eragiten du".

Hori irauli nahian abiarazi dute harrera familien egitasmoa, inguru erdaldunetako gazteek euskaraz bizi diren eremuak ezagutu ditzaten eta ondoren beraien inguru



Lauro ikastolako hainbat gaztek astebeteko egonaldia egin zuen apirillean Goizuetako eta Azpeitiko familietan.

naturalean ere euskaraz aritu daitezten, beste gazteentzat ere erreferentzia bihurtuz. Era berean, udalerrri euskaldunetako gazteak ere kontzientziatu nahi dituzte egitasmoak, herrian naturalki duten altxo-

rra eta euskararen garrantzia ikusaraziz. Horretarako, apirilaren amaieran, Lauro ikastolako zenbait gaztek astebeteko egonaldia egin dute Goizuetako eta Azpeitiko familia euskaldunetan.

### **Pauso eta Salto gazte topaketak: ekainaren 26tik 30era, USURBILDIK ARANTZARA**

Hilabete honen amaieran, udalerrri euskaldunetako 15 eta 18 urte arteko gazteek aurten ere aukera izango dute UEMAK antolatutako gazte topaketetan parte hartzeko.

Gazteak euskaldun gisa sentsibilizatzea, kontzientziatzea eta aktibatzea dute helburu topaketa hauek, eskolatik kanpo ere aisialdian hizkuntza ekologiararen ikuspegia jaso dezaten, eta euskararen garrantziaz jabetu daitezten.

Horretarako, udalerrri euskaldunetako gazteek elkar ezagutzea eta elkarren arteko sareak eratzea bitarteko

garrantzitsua da, gazteek inertziatik kontzientziarako jauzia eman dezaten, euskararen erabilera eta lurgunea zabaltzeko.

Hirugarren urtea dute aurten UEMAK gazteentzat antolatutako topaketek. Iaz, astebeteko udalekua izan zen.

#### **EGUTEGIA ETA IBILBIDEA**

- Ekainak 26: Usurbil-Oiartzun.
- Ekainak 27: Oiartzun-Bera.
- Ekainak 28: Bera-Arantza.
- Ekainak 29: Arantzako aterpetxea.
- Ekainak 30: Arantzako aterpetxea.



Ibiltaria izango da aurten gazteen topaketa, eta lau udalerrri euskaldunetan egingo dute geldialdia gazteek.

## EUSKARA PLANAK ABIARAZI DITU NAFARROAKO GOBERNUAK



Euskara Nafarroa osoan ofiziala izan dadin eskatzeko eta Euskararen Lege berria aldarrikatzeko azken urteotan hainbat aldiz atera dira herritarrek kalera Nafarroan.

**MARTXOAREN HASIERAN NAFARROAKO GOBERNUAK EUSKARA PLANAK MARTXAN JARRI ZITUEN BERE DEPARTAMENTUETAN, EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ETA HERRITARREN HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO. HORIEK UDALERRI EUSKALDUNETAKO HERRITARRENGAN ETA ZERBITZUETAN DUTEN ERAGINA KONTUAN HARTUTA, UEMAK "ELKARBIZITZAN SAKONTZEKO ETA HERRITARREN ESKUBIDEAK BERMATZEKO" AURRERAPAUTSOTZAT JO ZITUEN.**

Herritarrei zerbitzua euskaraz bermatzea lehenetsi izanda, hainbat eskaera ere egin izan dizkio UEMAK Nafarroako Gobernuari agintaldi honetan, Nafarroako Parlamentuan agerraldiak eginda, askieza den egoeraren berri emanez eta hutsuneak gainditzeko urratsak proposatuz. Izan ere, lehen aldiz, Nafarroako Gobernuarekin mintzakidetza izan du agintaldi honetan UEMAK, elkarlanerako ildoak zabalduz.

Egindako eskaeretan, bereziki lau zerbitzutako lanpostuak jo ditu lehenetsunezkotzat UEMAK, eta horietan langile euskaldunak ezinbestekoak izan daitezela eskatu du berriro ere: osasun arlokoak, liburuzainenak, Nafarroako Enplegu Zerbitzukoak eta mendizainenak.

## TURISMOAK HIZKUNTZARENGAN DUEN ERAGINA AZTERTZEKO LEHEN JARDUNALDIA IZANGO DA UDAZKENEAN

**TURISMOAK GORA EGIN DUEN HAINBAT UDALERRI EUSKALDUNETAN, BISITARIEK EUSKARAREKIKO DUTEN IKUSPEGIA AZTERTU DU UEMAK, INKESTEN BIDEZ. JASOTAKO ERANTZUNETAN JOERA ARGIA IKUSTEN DA: BISITARI IA GUZTIEK ESKERTU EGITEN DUTE EUSKARA IKUSTEA EDO ENTZUTEA, ETA ASKOK BERARIAZ HAUTATZEN DU UDALERRI EUSKALDUNETARA ETORTZEA, EUSKARAREKIN TOPO EGITEKO. DATUAK ADIERAZGARRIAK DIRA, ETA TURISMO EREDUAREN INGURUKO HAUSNARKETA EGITEKO AKUILU IZANGO DIRA. ZEHAZKI, EUSKARA ETA TURISMOA NOLA UZTARTU AZTERTZEKO JARDUNALDIA ANTOLATU DU UEMAK, LEHEN ALDIZ. AZAROAREN 21ean izango da.**



Apirilean Leitzako udaltxean egindako agerraldian aurkeztu zituen UEMAK bisitarietarako egindako galdetegiaren emaitzak, Ahize-AEK aholkularitzako eta Leitzako Udaleko teknikariek batera.

Zenbait herritan gaiari garrantzia eman dioten arren eta turismo eskaintzan euskara kontuan hartzeko ekimen aitzindariak abiarazi dituzten arren, oro har, oraindik lan handia dago egiteko arlo honetan. Izan ere, bisitari asko jasotzen dituzten herrietan, sektore batzuetan, erdarak nabarmentzeko eta euskara baztertzeko joera sumatzen da. Horregatik, gai honek duen garrantzia eta estrategikotasuna ikusita, azaroan euskarari eta turismoari buruzko jardunaldia egingo du UEMAK, gaia sakonago aztertzeko eta turismo sektoreari zein erakunde publikoei euskara turismo eskaintzan nabarmentzeko beharra ikusarazteko.



## UDAKO MERKATARITZA KANPAINARAKO BITARTEKOAK, UDALEN, OSTALARIEN ETA MERKATARIEN ESKURA

**UDALERRI EUSKALDUNETAN, GERO ETA GEHIAGO DIRA UEMAK ETA UDALEK ESKAINTZEN DUTEN LAGUNTZARI ESKER HIZKUNTZA PAISAIA EUSKARATZEN DUTEN DENDAK, TABERNAK ETA JATETXEAK. EUSKARA LEHENESTEKO HAINBAT ARRAZOI DITUZTE MERKATARIEK ETA OSTALARIEK, ETA HORIEN BERRI EMATEAZ GAIN, BEHAR DITUZTEN BITARTEKOAK ESKAINTZEN ETA DISEINATZEN DIZKIE UEMAK, UDALEKIN BATERA. MERKEALDI GARAIAK BEZALA, AURTEN ERE, UDAREN ATARIAN UEMAK GUTUNA BIDALIKO DIE BERTAKO KIDE DIREN UDALERRIETAKO MERKATARIEI ETA OSTALARIEI, ZERBITZUAK EUSKARAZ ESKAINI DITZATEN DUTEN LAGUNTZA NABARMENDUZ.**



Merkataritzan eta ostalaritzan ohikoak diren kartelak euskaraz eskaintzen ditu UEMAK.

Dendak, tabernak eta jatetxeak udalerrri euskaldunen irudia eta erakusleihoa ere badira hein handi batean, eta horregatik UEMAK eta bertako kide diren udalek ahalegin berezia egiten dute hizkuntza paisaia eta zerbitzuak euskalduntzeko. Udaren atarian, areagotu egiten da ahalegina, bisitariek udalerrri euskaldunetan euskaraz garelako ikusi eta sentitu dezaten. Horretarako, UEMAK eta udalek gutuna bidali ohi diete merkatariei eta ostalariei, laguntza eskainiz. Zehazki, euskara lehenesteko hainbat arrazoi eta argudio azaldu ondoren, UEMAtik eta udaletatik jaso ditzaketen zerbitzuen berri ematen zaie ekainean merkatariei eta ostalariei, euskaraz aritzeko erraztasun guztiak izan ditzaten. Ondoren, herrietatik jasotako eskaera guztiak bideratzen dira, ekainaren amaierarako. Kanpaina bakoitzean, dozenaka kartel eta euskarri diseinatu eta zabaldu ohi ditu UEMAK, denda edo taberna bakoitzaren beharren arabera pertsonalizatuta.

## ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINA EGIN DUTE AURTEN ERE UEMAK ETA UDALEK, ELKARLANEAN



Ondarroako, Lekeitioko eta Markina-Xemeingo alkateek, udal ordezkariekin, finantza erakundeetako eta aholkularitzetako kideekin batera, herritarrei errenta aitortpena euskaraz egiteko deia egin diete aurten ere. Argazkia: Ondarroako Udala / [udalbarriak.eus](http://udalbarriak.eus)

**AURTEN ERE, ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ EGITEKO KANPAINAREKIN, HERRITARREK ADMINISTRAZIOAREKIN DITUZTEN HARREMANAK EUSKARAZKOAK IZAN DAITEZEN BULTZATU NAHI IZAN DUTE UEMAK, UDALEK ETA BESTE HAINBAT ERAKUNDE PUBLIKOK.**

2018ko errenta eta ondarea aitortzeko kanpainarekin bat eginez, UEMAK, bertako kide diren udalekin elkarlanean, errenta aitortpena euskaraz egiteko kanpaina egin du aurten ere. Gaur egun herritarren gehiengo handi batek autolikidazio proposamena jasotzen duela kontuan hartuta, batez ere horri eman zaio aurten ere garrantzia.

Administrazioa euskalduntzeko duen eraginagatik, euskararen normalizazioarako bidean udalerrri euskaldunak egiten ari diren beste urrats bat da errenta aitortpena ahalik eta herritar gehienek euskaraz egitea. Urratsa sendoa izan dadin, ordea, herritarren babesa eta parte-hartzea beharrezkoa da, eta hau horretan eragin nahi izan du aurten ere kanpainak.

## UEMAREN KONPROMISOA 2019KO KORRIKAN: EUSKARA ERDIGUNEAN KOKATZEKO LANA BIDERKATZEA

**AEK-ren ekimenez, EUSKALGINTZAKO ETA ERAKUNDE PUBLIKOETAKO HAINBAT ORDEZKARIK BAT EGIN ZUTEN APIRILEAN, BASTIDAN, KORRIKAREN KILOMETRO BAT ELKARREKIN EGITEKO ETA BAKOITZAK KONPROMISO ZEHATZ BAT HARTZEKO. BERTAN IZAN ZEN UEMA ERE, ETA HIRU KONPROMISO HARTU ZITUEN. UEMAKO LEHENDAKARI JOSU LABAKAK SINATU ZUEN AGIRIA.**

Korrika amaitu bada ere, bertan parte hartu duten hainbat gizarte eragilek konpromiso zehatzak ere hartu dituzte aurten, euskararen biziberritzeari hauspoa emateko. Konpromiso horien berri eman zuen AEK-k Bastidan, konpromisoak sinatu dituzten eragileetako ordezkariekin batera. UEMA ere bertan izan zen.

Zehazki, euskara eta euskararen normalizazioa politikaren erdigunean kokatzea, UEMAKO kide diren 86 udaletan herritarrei zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzea, eta udaletan hizkuntzaren gaia zeharlerrotasunez lantzea dira UEMAK Korrikarekin hartutako hiru konpromisoak.

Horiek bete ahal izateko UEMAK hartuko dituen neurriak ezagutarazi zituen Josu Labakak:

- Agintaldi berrian kargua hartuko duten udal ordezkarietatik UEMAK berriaz prestatuko du euskararen inguruko trebakuntza saioa, udalekin eta teknikariekin elkarlanean. Euskararen arnaguneen garrantziaren eta hizkuntza ekologiaren ikuspegiaren berri emango zaie hautetsiei.
- UEMAKO kide diren 86 udaletan herritarrei zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzea, eta beste administrazioek ematen dituzten zerbitzuak ere euskaraz izan daitezten bermatzeko zubi lanak egitea.
- Udaletan hizkuntzaren gaia zeharlerrotasunez lantzeko neurriak hartzea, udal langileak trebatuz eta hautetsiak kontzientziatuz.



Goian, Amaia Azkue, Berastegiko alkatea eta UEMAREN zuzendaritza batzordeko kidea, Gasteizen, Korrikaren amaieran, UEMAREN izenean lekukoa eramaten. Behean, erakunde publikoetako eta hainbat arlotako gizarte-eragileak, bakoitzak sinatutako konpromisoak aurkezteko ekitaldiaren ostean, Bastidan.

## UDALERRI EUSKALDUNEN BERRI, EGUNERO: URTE OSOAN ZEHAR, SAREAN ETENIK GABE JASO DAITEKE UEMAREN INFORMAZIOA UDALERRI EUSKALDUNEN INFORMAZIOA

**UEMA.EUS** webgunean ez ezik, **TWITTER**, **FACEBOOK**, **INSTAGRAM** ETA **OHIKO SARE BIDEETAN ETENIK GABE ZABALTZEN DU UEMAK INFORMAZIOA, HIZKUNTZA POLITIKARI ETA UDALERRI EUSKALDUNEI BURUZKO ALBISTEAK NABARMENDUZ.**

